villabona.dok

VI. dokumentalen zikloa

GUREA ANTZOKIA
DEL 20 DE FEBRERO
AL 24 DE ABRIL
20:00etan

Elkarrekin Together • Angry Inuk
• Muchos hijos, un mono y un castillo • Baskavigin
• Chavela • Arte al mar

SARRERA: 2 €

AMASA-VILLABONA · Villabonako Udala · Kultura Villabona

villabona.dok — gurea antzokian

otsailak **20** febrero / 20:00

ELKARREKIN TOGETHER

Zuzendaria: Migueltxo Molina, Pablo Iraburu e Igor Otxoa | **Urtea:** 2016-2017 | **Iraupena:** 93´
Hizkuntza: Euskara | **Azpitituluak:** Gaztelania

Esploratzaile talde bat txalupaz iritsi da uharte batera, Estatu Batuetako kostaldeko toki urrun batean. Paisaia guztiz naturala da, basatia eta denboraz kanpokoa. Esploratzaileek beren materiala deskargatu dute: urpean igeri egiteko, indusketak egiteko eta argazkiak egiteko ekipamenduak daude. Espedizioan Estatu Batuetako eta Kanadako zenbait arkeologo eta urpekari batu dira. Bilaketa hasi da. Talde lanak hainbat egoera berri sortu ditu: adiskidetasuna, aurkikuntza, naturarekin bat egitea eta behinolako garaiak gogora ekartzea.

Un grupo de exploradores llega en lancha a una pequeña isla, en un paraje remoto. Estamos en la costa este de Estados Unidos. El paisaje es totalmente natural, salvaje y fuera del tiempo. Los exploradores descargan su material: hay equipos de buceo, excavación y fotografía. A la expedición se suman varios arqueólogos y buceadores norteamericanos, de Estados Unidos y Canadá. Comienza la búsqueda. El trabajo en equipo genera situaciones de compañerismo, descubrimiento, encuentro con la naturaleza y evocación de un tiempo lejano.

otsailak **27** febrero / 20:00

ANGRY INUK

Zuzendaria: Alethea Arnaquq-Baril | **Urtea:** 2016
Iraupena: 85´ | **Hizkuntza:** Inuktitut, ingelesa
Azpitituluak: Gaztelania

Zinemagile Inuk batek arretaz aztertzen du itsas txakurren ehizak Inuiten bizimoduan izan duen eragin garrantzitsua: itsas txakurren larruen salmentarena, ekonomian, edota itsas txakurren ehizaren aurkako nazioarteko kanpainek zabaldu duten herri honen irudi negatiboa.

Una cineasta Inuk examina de cerca el papel central de la caza de focas en la vida de los Inuit, la importancia de los ingresos que obtienen de las ventas de pieles de focas y el impacto negativo que las campañas internacionales contra la caza de focas han tenido en sus vidas.

VI. dokumentalen zikloa

martxoak **13** marzo / 20:00

MUCHOS HIJOS, UN MONO Y UN CASTILLO

Zuzendariak: Gustavo Salmerón | **Urtea:** 2017
Iraupena: 90´ | **Hizkuntza:** Gaztelania

Julitak, amak, bere amets guztiak bete ditu: familia ugaria, tximino bat eta gaztelu bat izatea. Orain, berriz, krisi ekonomikoaren eragina pairatzen ari da: bizileku bikaina mantentzeko dirurik ez, baina, bere ekimen eta trebetasunari esker, familia aurrera ateratzea lortzen ari da.

Goya sariak: 2017ko dokumentalik onena

Julita, la madre, ha cumplido todos sus sueños de tener una familia numerosa, un mono y un castillo, y ahora sufre los efectos de la crisis económica, sin dinero para poder mantener el imponente inmueble, y a base de iniciativa y tacto logra mantener a la familia a flote.

Premios Goya: Mejor documental 2017

martxoak **27** marzo / 20:00

BASKAVÍGIN
La matanza de los balleneros vascos

Zuzendariak: Aitor Aspe | **Urtea:** 2016
Iraupena: 70´ | **Hizkuntza:** Gaztelania

1615eko ekainean, Donostiatik abiatu ziren 86 balea-arrantzale, Islandiako iparraldea helburu; Martin Villafranca, Pedro Agirre eta Esteban Telleria ziren kapitainak. Ehiza denboraldi arrakastsuan zehar zenbait tirabira eta lapurreta izan ziren Islandiako biztanleen eta euskal eskifaien artean. Gainera, irailaren bukaeran, sekulako ekaitz batek itsasontziak suntsitu zituen, eta Donostiara itzultzea galarazi zien. Atera ezinik geratu ziren Europako uharterik pobre eta basatienean; eskifaiek ihes etsiari eman zioten, eta marinel gogor eta azkerrenak bakarrik atera ziren bizirik.

En junio de 1615, 86 balleneros procedentes de San Sebastián, capitaneados por Martín de Villafranca, Pedro de Aguirre y Esteban de Tellería navegan hasta el norte de Islandia. Durante una exitosa temporada de caza, se producen varios roces y hurtos entre la población islandesa y las tripulaciones vascas. Además, a finales de septiembre, una feroz tempestad destruye sus embarcaciones impidiéndoles volver a San Sebastián. Atrapados y sin víveres en la isla más pobre y hostil de Europa, las tripulaciones emprenden una huida desesperada en la que sólo sobrevivirán los más duros y astutos marineros.

villabona.dok — gurea antzokian

apirilak **10** abril / 20:00

CHAVELA

Zuzendariak: Catherine Gund, Daresha Kyi
Urtea: 2017 | **Iraupena:** 93´
Hizkuntza: Gaztelania

Bere egitura lirikoaren poderioz, *Chavelak* bidaia iradokitzaile batean hasteko gonbitea egiten dio; bertan, joku-arauak aldatu zituen artista ikonoklastaren bizimodua ezagutuko du.
2012an hil baino 20 urte lehenago egindako elkarrizketetan hartutako eta orain arte ikusi ez diren irudiak dira abiapuntua; Chavelaren abestietako istorioak, mitoak eta beraren gainean beste batzuek eraiki dituzten kontuak eta berak zabaldutakoak izango ditugu lagun. Pelikulak erretrato liluragarria egiten du: inor ez bezala jantzi, hitz egin, kantatu eta amets egin zuen emakume batena.

A través de su estructura lírica, Chavela lleva a los espectadores a un viaje evocador y estimulante a través de la vida iconoclasta de la artista, que cambiará las reglas del juego.

Centrado en imágenes de entrevistas nunca antes vistas tomadas 20 años antes de su muerte en 2012, y guiada por las historias en las canciones de Chavela y los mitos y cuentos que otros han contado sobre ella, así como los que ella difundió sobre ella, la película teje un retrato deslumbrante de una mujer que se atrevió a vestirse, hablar, cantar y soñar con su vida única.

apirilak **24** abril / 20:00

ARTE AL AGUA
Los bacaladeros de Terranova

Zuzendariak: Olivier van der Zee | **Urtea:** 2017
Iraupena: 118´ | **Hizkuntza:** Gaztelania

60ko hamarkadaren bukaeran, 5.000 marinel baino gehiago zituzten 100 itsasontzik 300.000 tona bakailao arrantzatzen zituzten urtean.

70eko hamarkadaren bukaeran hasi zen arrantzaren gainbehera. 1977an, Kanadak 200 itsas milia babestu zituen, produktua eta beren ustiapen propioa segurtatu nahian. 1992an, Kanadak bakailaoaren arrantzaren luzamendua onartzea beste erremediorik ez zuen izan. Gaur egun, 25 urte ondoren, ez da oraindik errekuperatu.

Protagonistek beren istorioa kontatuko dute. Istorio eta historia pertsonal bat, urte haietako bizipenak helaraziko dizkiguna.

A finales de los 60 más de 100 barcos, con más de 5.000 marineros pescaban 300.000 TN/año.

Hasta que todo se vino abajo, las capturas comenzaron a escasear a finales de los 70. En 1977 Canadá declaró las 200 millas marinas para asegurar el recurso y su explotación propia. En 1992 Canadá se vio obligado a declarar la moratoria de la pesca del bacalao. Hoy en día, 25 años después, todavía no se ha recuperado.

Los protagonistas contarán su historia. Una historia personal a través de la cual conoceremos lo que vivieron durante esos años.